

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

953

EBAZPENA, 2023ko otsailaren 9koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Laborategiko teknikariaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko irailaren 8an emandako Aginduaren bidez, oinarri orokorrak onartu ziren arautzeko nola bideratuko diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako lanpostuetan enplegua finkatzeko prozesu bereziak eta enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuak. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko irailaren 13an.

Era berean, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak 2022ko azaroaren 17an emandako beste agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Laborategiko teknikariaren lanposturako salbuespenezko prozesuko deialdia egin zen, eta prozesu horretako oinarri espezifikoak onartu ziren. Agindu hori ere Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 2022ko azaroaren 23an.

Hautaketa-prozesuari aplikatuko zaion 10. oinarri orokorrak ezartzen du ezen, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenden kontrako erreklamazioak egiteko epea igarota eta erreklamaziook ebatzita, IVAPEko Zuzendaritzak ebazpen bat emango duela, eta, hor, agindua emango dela argitara emateko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak. Zerrenda horietan, adieraziko da zein den hautagaiak baztertzeko arrazoia, hala dago-kionean, bai eta hautagaiak zer modalitatetakoak diren, eta, finkatzeko prozesu berezien kasuan, zer txandatakoak.

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko Lan Kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenean lan-kontratudunentzat gordetako Laborategiko teknikariaren lanpostuan enplegua finkatzeko salbuespenezko prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrenda.

2. artikulua.– Agintzea onartutako zerrendak argitara eman daitezela hautaketa-prozesuko web-orriko Eskaerak eta hautaketa-prozesuen jarraipena atalean eta 7. oinarri orokorrean adierazten diren tokietan, hautaketa-prozesuan interesa dutenek zerrendok kontsulta ditzaten.

3. artikulua.– Identifikazio elektronikoko bitartekorik ez duten pertsona guztiei gogorarazten zaie BakQ txartela emateko gaitutako zentroetara jo dezaketela baldin eta hautaketa-prozesurako eman zitzaizen aldi baterako erabiltzailea baino ez badute. Izan ere, aldi baterako erabiltzaile hori

erabilita, identifikazio elektronikoko bitarteko bat lortu ahal izango dute hasiera-hasieratik egiteko hautaketa-prozesuko jarraipen elektronikoa.

4. artikulua.– Ezartzea 2023ko irailaren 14an hasiko dela merezimenduak alegatzeko epea, eta 2023ko irailaren 27an amaituko dela.

Merezimenduak alegatzeko epean, hautaketa-prozesuan parte hartzen dutenek honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte baldin eta prozesuan parte hartzeko betekizun badira edota merezimendu modura alegatzen badira balora daitezen:

Hizkuntzen tituluak edo ziurtagiriak –ez euskararenak–, hizkuntza-eskola ofizialek eman ez dituztenak (kopia soila).

Atzerrian lortutako tituluak eta haien homologazio-egiaztagiriak (kopia soilak), dela hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizun gisa alegatu direlako, dela merezimendu modura alegatzen direlako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik edo haren erakunde autonomoetatik kanpo emandako zerbitzuen ziurtagiriak (kopia soila).

5. artikulua.– Gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen honen aurka, ez baitu agortzen administrazio-bidea; betiere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengo arabera. Errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoa, bestalde, ebazpen hau eman duen organoari jar dakioke, edo Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari. Gora jotzeko errekurtoa aurkezten denetik hiru hilabete pasatzen badira ebazpen espresurik eman gabe, ezetsizat hartu ahal izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 9a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.